

Irungo  
euskarazko  
hamabostekaria

# Irrunero

307

Abuztuak 15, 2017



**2** Irun Atzo Irun Gaur

**3** Loidi bekak

**4** Bidasoa Folk XVII

**5-6-7** Irungo Euskal Jira

**8** Uda programa

**9** Mikel Martiarenari elkarrizketa

**10** Gorka Martinez-Udarako bidaia: Berlin

**11** Haurren leihoa

**12** Gazteen lanak

**13** Gazteentzako etxebizitzak

**14** Gazte informazioa

**15** Agenda



## PAGOGAINA KALEA



1975eko urriaren 30eko Osoko Bilkuran jarri zioten izena, Luis de Urantz Kultur Taldearen proposamenez. Anaka auzoan dago, zati bat Irungo udalerritik igarotzen da, eta beste zatia, Hondarribitik. Letxunborro hiribidetik doana da, gero berriro hiribide berera itzultzeko, Ospitale kalea hasten den puntuan.

Izen honekin, toponimo irundar ugarietako bat kontserbatu nahi izan zen. 482m-ko mendi bat da, 2.karlistadaren ondoren eraikitako bi dorre eta gotorleku baten hondakinak gordetzen dituena. Mendi tontorrean dago eta harresi bikoitza eta kanpoko foso bat zituen, egun landareek estaliak.

Monolito bat ere badago bertan, soldaduek ez desertatzearen jarri zena, maiz gertatzen baitzen, XVIII. eta XIX. mendeetan, muga aldeko zonaldean, gerra arriskua zegoenean. Gaur egun, toki lasaia da, udako asteburuetan aire freskoa hartu eta hiriko zaratetatik ihesi doan jendearentzat.

**Iturria: José Monje**  
Irungo kaleen izenak

## IRUNERO

**Erredakzioa eta maketazioa:**

Joseba Arozena  
Unai Oiartzun  
Ainara Berges

**Euskara zuzentzailea:**

Unai Oiartzun

**Publizitatea:**

Sonia Garcia Olazabal  
Amaia Terrazas  
Ion Otxoa

**Diseinua:**

Andrea Gomez Arocena

**Argitaratzailea:**

837 comunicación y publicidad S.L

**ISSN:**

1134-0606

**Lege gordailua:** SS-230-94

**Tel:** 943 04 2052

Erakunde honek Irunero diruz laguntzen du:



Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak  
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak)  
diruz lagundua:



Erakunde honek Irunero diruz laguntzen du:



# Sasiarkazia espezie inbaditzailearen ikerketa sarituko du Jose Antonio Loidi bekak

Bekaren hamahirugarren ediziora hiru proiektu aurkeztu dira guztira

Sasiarkazia espezie inbaditzailearen eraginak ikertuko dituen proiektuak jasoko du 2016ko Jose Antonio Loidi Beka. Euskaraz burutuko den proiektu honek Behe Bidasoa eskualdeko lursailak ikertuko ditu, espezie inbaditzaileak izan duen eragina ezagutzeko helburuarekin. Jose Antonio Loidi bekaren 13. edizioa da honakoa, eta guztira, hiru proiektu aurkeztu dira lehiaketara.

Bekaren 13. edizioak honako proiektua sarituko du: sasiarkazia espezie inbaditzailearen azterketa dendrokronologikoa Behe Bidasoa eskualdean. Nerea Amaia eta Maddi Mujika dira proiektu honen bultzatzaileak eta ikerketaren proiektua, azterlana eta memoria euskaraz burutuko dituzte. Euskara arloak 12 hilabeteko iraupena izango duen bekarekin eta 9.000 euroekin sarituko du proiektu irabazlea.

Ikerketan zehar bi espezieen arteko erlazioa ikertuko da, sasiarkazia eta haritza, hain zuzen ere. Dendrokronologiaren bitartez burutuko da ikerketa, zuhaitzen adina, hazkuntza, eta hazkuntzan eragiten duten faktoreak antzeman ahal izateko. Laginak eskuratzeko ez da beharrezkoa izango zuhaitzak botatzea edo moztea, barrena izeneko erremintaren laguntzarekin zuhaitzean zulaketa txiki bat egitearekin nahikoa baita.

**“Nahiz eta sasiarkaziak bertako basoen dinamikan duen eragina ezaguna izan, egia esan, oso ikerketa lan gutxi daude espezie honek duen eraginaren inguruan”**

Nerea Amaia, ikerketako zuzendaria

Biologian doktorea den Nerea Amaia da sasiarkazia ikertzeko proiektu honen zuzendaria. Maddi Mujika, berriz, lanaren garapenaz, txostenak burutzeaz, laginak eskuratzeko eta emaitzak ikertzeaz arduratuko da. Ikerketaren gaia arlo horretan zegoen hutsunea betetzeko asmoz aukeratua izan zen. “Nahiz eta sasiarkaziak bertako basoen dinamikan duen eragina ezaguna izan, egia esan, oso ikerketa lan gutxi daude espezie honek duen eraginaren inguruan”, adierazi du Nerea Amaia ikerketaren zuzendariak.

Ikerketa honetan bi motatako landareak ikertuko dira: landare espezie aloktono eta autoktonoak. Sasiarkazia espezie aloktonoa da, izan ere, bere eremu naturaletik kanpo bizi den espeziea da. Honetaz gainera, inguruko espezieak kaltetzen dituzte, sasiarkazia espezie aloktono inbaditzaile bat da. Bestetik, haritza izango da ikerketan aztertuko den espezie autoktonoa, sasiarkaziak bere inguruan izan duen eragina ikertzeko.

Behe Bidasoa eskualdeko hiru partzelatan burutuko da ikerketa lana. Oraingo bi partzela lokalizatu dituzte soilik eta biak udal partzelak dira. Lehenengoa Siutz eskolaren gainean kokaturik dago eta bigarrena, berriz, Erain ikastetxearen alboan. Hirugarren partzela zehaztu gabe dago oraindik, baldintzak beteko dituen lursail baten bila dabilzalako ikertzaileak.

Partzelen aukeraketak buruhauste ugari ekarri dizkie ikertzaileei, lursailak bi baldintza ezinbesteko bete behar baitituzte. Alde batetik, partzela beraren barnean sasiarkazia eta haritza egotea ezinbestekoa da. Bestetik, bi espezieak elkarrengandik gertu egon behar dira, biak baldintza klimatiko antzekoen menpe egon daitezen. Baldintzak direla medio, lursailak topatzeko zailtasunak izan dituzte, bi zuhaitz motak hurbil dituzten partzelen urritasuna dela eta.

#### Hamahirugarren beka

Jose Antonio Loidi Beka deialdia bi urtetik behin burutzen da, orain dela hamasei urte zendu zen ikerlari eta idazle ospetsua omentzeko asmoz. “Omenaldia izateaz gainera, beka honen bitartez, hainbat esparrutan euskaraz egindako ikerketa suspertu nahi da”, azaldu du Josune Gomez Euskara ordezkariak. Antropologia, filologia, toponimia, literatura, osasun publikoa, hidrologia eta botanikaren inguruko lanei zabalik dago Jose Antonio Loidi beka. Era honetan, ikertzaileak bere bizitzan zehar landu zituen esparru gutxiei deialdia zabalduz.

**“Beka honen bitartez, hainbat esparrutan euskaraz egindako ikerketa suspertu eta bultzatu nahi da”**

Josune Gomez, Euskara ordezkaria

1999an sorturiko Jose Antonio Loidi bekaren 13. edizioa izan da honakoa. 2016ko deialdira hiru proiektu aurkeztu ziren guztira. Hautagaien artean, ordea, Nerea Amaia eta Maddi Mujikaren proiektuak arreta deitu du. Esku artean duten ikerketa bultzatzeko erabiliko dute bergarrek Irungo Udaleko Euskara arloak eskainiriko saria.



ANTXETA

**IRRATIA**

90.5 / 89.7 FM

**Olaizola**

Immobiliaria agentzia

- ✓ Salmenta Alokairuak
- ✓ Promozio berriak
- ✓ Aholkularitza

Beraketa kalea, 17 • 20302 IRUN • Tel: 943 626585  
[info@inmobiliariaolaizola.com](mailto:info@inmobiliariaolaizola.com)  
[www.inmobiliariaolaizola.com](http://www.inmobiliariaolaizola.com)



# Hiru musikari handik beteko dituzte Bidasoa Folk jaialdiko eszenatokiak

Kontzertuak dohainik izango dira eta Bidasoa-Txingudiko hiru udalerrietan burutuko dira

**Bidasoa Folk jaialdia ospatuko da abuztuaren 18tik 20ra, Txingudi badian. Jaialdiaren 17. urteurrena ospatzeko, maila handiko hiru kontzertu eskainiko dituzte. Aurreko urteetako edizioetan bezala, kontzertuak doakoak izango dira, eta mundu mailako artista ezagunekin beteko dituzte Irungo, Hondarribiko eta Hendaia eszenatokiak.**

Jaialdiaren edizio honetan, hiru artista handik osatuko dute Bidasoa Folk jaialdiaren programazioa. Hain zuzen ere, Carlos Nuñez, Aziza Brahim eta Flavia Coelho dira aurtengo ediziora gonbidatuak izan diren artistak. Horietako bakoitzak Bidasoa bailarako udalerrri batean eskainiko du bere kontzertua. Aurreko edizioan bezala, kontzertuen ordutegiak moldatuak izan dira, publiko guztiak nazioarteko musikaz gozatzeko aukera izan dezan.

Bidasoa Folk jaialdia urteak betetzen joan da etengabe, eta aurtengo udaran musika jaialdi honen 17. edizioa ospatuko da. Urteak igaro arren, jaialdiak bere esentzia mantentzea lortu du, urtetik urtera. Hala ere, edizio berri bakoitzarekin gertatu ohi den moduan, aurtengo jaialdiak ere berrikuntzaren bat izango du. "Hamazazpigarren urtez ospatzen da jaialdia, eta une honetan, oso osasuntsu aurkitzen da", adierazi du Arantxa Berrotaran Hondarribiko Udaleko ordezkariak.

Lehenengo kontzertua abuztuaren 18an ospatuko da Hondarribian, eta Carlos Nuñez musikaria izango da jaialdiari hasiera emango dion artista. Musikari galiziarak, bere emanaldiaren baldintzak direla medio, Itsas Etxea Auditorioan eskainiko du kontzertua, gaueko 21:00etan. Hauxe izango da jaialdiaren berrikuntzetako bat, izan ere, lehen aldiz jaialdiaren emanaldi bat areto batean burutuko da, eta ez kalean, ohikoa den bezala.

Itsas Etxea Auditorioko kontzertuak sarrera mugatua izango du, eta 699 pertsonentzako tokia egongo da. Kontzertuaz gozatzeko sarrerak abuztuaren 14tik aurrera eskuratu ahal izango dira Irungo, Hondarribiko eta Hendaia turismo bulegoetan. Bakoitzak lau sarrera eskuratu ahal izango ditu, gehienez. Sarrerak doakoak izango dira eta, jaialdiaren antolakuntzatik jakinari dutenez, publikoak ez du eserlekurik edukiko, Bidasoa Folk jaialdiaren esentzia mantentzeko asmoz.

Abuztuaren 19an, Aziza Brhaim abeslari sahararraren txanda izango da. Irungo Urdanibia plazan eskainiko du bere emanaldia, gaueko 21:00etatik aurrera. Asteburu horretan, Ama Xantalen auzoko jaiak ospatuko dira. Horregatik, auzoko jaien egitarauan tarte bat egin diote Bidasoa Folk jaialdiari, eta egun horretan Urdanibia Plazaren ingurua jendez betetzea espero da.

Flavia Coelho Bidasoa Folk jaialdiaren azken egunean eskainiko du bere kontzertua, abuztuaren 20an. Hendaia izango da jaialdiaren azken eszenatokia eta arratsaldeko 20:30etan hasiko da abeslari brasildarraren emanaldia. Hendaia kontzertuaren kokapen aldaketa jaialdiaren beste berrikuntzetako bat izango da. Izan ere, lehen aldiz Sokoburu plazan ospatuko da Bidasoa Folk jaialdiko kontzertua, hondartzan eta plazako tabernen inguruan pilatu ohi den jendea erakartzeko asmoz.

Bidasoa-Txingudi Mugaz-Gaindiko Partzuergoa da jaialdi honen antolatzaile nagusia, bailarako hiru udalerrietako udalen laguntzarekin. Miguel Angel Paez Irungo Udaleko ordezkariak azaldu du Bidasoa Folk Jaialdiak, jende asko mugitzen duen jaialdia izateaz gainera, udarako agenda kulturala osatzen duen ekitaldia dela. Era honetan, jaialdiak turistak zein bailarako bizilagunak erakarri nahi ditu, eta jendea hiru hirietako eszenatokien artean mugitu nahi du. Christelle Cazallis Hendaia Udaleko Ordezkariak argudiatu du: "Kulturak hiru lurraldeen arteko muga era erraz batean apurtzea ahalbidetzen du".

## Jatorri ezberdinak, helburu berdina

Bidasoa Folk jaialdiaren 17. edizioak nazioarteko artistekin beteko du Bidasoa bailara. Izan ere, abuztuaren 18tik 20ra munduko bazter desberdinetako artistek zapalduko dituzte Irungo, Hondarribiko eta Hendaia eszenatokiak. Era honetan, kultur aniztasun handiko jaialdia izango da aurtengoa.

Kultura aniztasunaz gainera, musika estilo desberdinez disfrutatzeke aukera egongo da. Izan ere, hiru artista gonbidatuak beren inguruko musika erabiltzen dute oinarri moduan, baina haien emanaldietan beste estilo musikalekin nahasketak egiteko trebetasun handia erakutsi dute.



EGUNEKO MENUA · DASTATZEKO MENUA · KARTA · PINTXOAK ETA ERRAZIOAK



Meaka auzoa, 9 - 20305 IRUN  
Tel.: 943 841 964



FELIX MANSO IBARLA JATETXEA



info@felixmanso.com  
www.felixmanso.com





# Oporrak denontzat!

Uda hurbiltzen zaigun bakoitzean, oporretan pentsatzen hasten gara. Aurren ere, zenbait egoiliar oporretan eduki ditugu egoitzan, haien senideek edo laguntzaileek atsedena hartu ahal izan zezaten. Bai Gipuzkoako Foru Aldundiarekin hitzartutako serearen bidez, baita maila pribatuan ere: opor egonaldiak, senideen edo laguntzaileen aisialdirakoak, aldi baterakoak, betirakoak, errehabilitaziorakoak, egun pasa etorritakoak, garraio egokitua-ren zerbitzuarekin.

Bizpahiru hilabetez, beste era batera bizitzeko asmoa dute, egoitzan eskaintzen diren zenbait aktibitate edo animazioetan parte hartzeko parada edukiz. Sanmartzialekin eman genion hasiera udari, eta beste zenbait ekintza etorri dira ondoren, udako sasoiaren zehar: sagardo eguna, ateraldi ezberdinak, paella jatea, karaokeak, musika tresna kontzertuak, azal minbiziari buruzko hitzaldiak AECC elkartearen babesarekin, baita Hondarribiko hondartzara ateraldiak, Oztoporik Gabeko Bainuak programaren baitan.

Sasoiari bukaera emateko, "Udako festa" antolatzen dugu, hurrengo abuztuaren 31n, ostegunarekin, Caser Anaka egoitzako terrazan. Bertan, DOIKE taldeko trikitilariak alaiturik, Pintxo Lehiaketa antolatzen dugu. Festan parte hartzera gonbidatuta daude irundar guztiak eta bisitariak. Sagardoak, pintxoak, trikitilariak eta umore ona izango dira protagonistak! Animatu eta hurbildu!



Anaka kalea, 8 - IRUN 943 667780



CASER ANAKA



GURE AITONA-AMONEN  
ONGIZATEA HELBURU  
Egonaldi iraunkorrak  
eta aldi baterakoak

Zubieta, 121 - HONDARRIBIA 943 647169



CASER BETHARRAM



# Euskal Jira 2017







## Ketty's Academy

- Klaseak taldeka eta pertsonalizatuak
- Esperientzia zabala ingelesaren irakaskuntzan
- Enpresentzako klaseak: ingelesa, alemana, italiara, frantsesa, espainiera
- Maila guztiak
- Tituluak eskuratzeko klaseak

Kale Nagusia, 27  
943 635259  
IRUN  
J. M. Iparragirre  
kalea, 10 - behe 4  
IRUN  
652 777 360  
[kettysacademy@gmail.com](mailto:kettysacademy@gmail.com)

**EGONALDIAK EEUetako famillirekin**



Ingelesa 4 urtetik aurrera !!





**SARO MAISUA**  
Sendatzailea

Emaitzak jaso ondoren ordainduko duzu.

Espezialista ondorengo arazoetan:  
Maitasuna - Lana - Negozioa  
Begizkoa - Senideak - Zortea  
Osasuna - Justizia - Etsaiak  
Babesa - Sexu ezintasuna

Emaitza bermatuak eta azkarrak.  
653 598 887 7:00etatik 22:0etara.

**ARGITZE ZENTROA**  
**ESTIMULAZIOA**

- Narriadura kognitiboa gelditzea dementzia kasuetan
- Errehabilitazio kognitiboa hainbat kasutan: Iktusa, traumatismoak, tumoreak, anoxia...
- Adinarekin lotutako narriadura tipikoaren prebentzioa

Ebaluazio neuropsikologiko osoa + txostena  
TERAPIAK: Bakarkako terapia, taldekoa eta mistoa



NEUROPISKOLOGOEA

Santiago, 51  
IRUN  
635 703055  
943 051227



# Udaran ere gorputza astinduz

Uztailean eta abuztuan ikastaroak eskaintzen dituzte hiriko kirol elkarteek

**Irungo Udalaren UDA programan txertatuta daude hiriko hogeit hamar kirol elkarteren udako ikastaroak. Uztailean eta abuztuan zehar, kirol ezberdinak probatzeko aukera eskaintzen diete irundar gazteenei. "Guretzat oso garrantzitsua da programa, udaran aisiari eta dibertsioari dagokionez egon daitekeen hutsunea estaltzen duelako", azaldu du Pedro Alegre udaleko Kirola arloko ordezkariak: "Oso eskertuta gaude familiekin, eta ikastaroak antolatzen dituzten elkarteekin".**

UDA programan parte hartzen duten haur askok, urtean zehar burutzen ez dituzten kirolak probatzeko baliatzen dute aukera. Horixe gertatzen da, esate baterako, Super Amara Bidasoa Atletiko Taldeak antolatzen dituen Atletismo Udalekuetan. Ibon Muñoz klubeko kirol zuzendariak baieztatu du udaran Plaiaundin aritzen diren haur gehienak sekula atletismoan ibili gabeak izaten direla. Eta ondoren ere, gutxi direla ikasturtean zehar atletismoan jarraitzeko izena ematen dutenak: "Duela lau urte formatu honekin hasi ginenean, ez genuen helburu hori. Gehien bat, es-

kualdeko gurasoek udaran izaten duten beharrari erantzutea zen gure asmoa. Bide batez, kirola ezagutarazteko modua da, baina aurrerago ikusiko dugu harra-patzen ditugun edo ez".

Atletismo Udalekuen arrakasta zalantzaezina da, hala ere. Iaz 175 izen-emate eduki zituzten, eta aurten 280tik gora. "Ez dugu atletismoa soilik lantzen, askotariko kirolak baizik", nabarmendu du Muñozek: "Atletismoa ere, jolas moduan planteatzen dugu". Gainera, astean behin Plaiaunditik ateratzen dira, pala, erraketa edo igeriketa egitera. Bi aukera eskaintzen ditu BATEk, 8:30etatik 13:30etara artekoa, edo 15:30etara artekoa bestela, Singular Iñigo Lavado jatetxean bazkaltzeko aukerarekin. Udara osoan zehar, astez-aste izena emateko aukera dago.

#### Errugbia ingelesez

Ordutegi berdinak eskaintzen ditu Plaiaundiko bizilagunak, Txingudi Errugbi Taldeak. Eskaintza berezia da, baina, haiena. Summer Camp izena jarri diote, ingelesezko ikastaroa baita. "Ingelesa praktikatzeko aukera eskaintzen dugun bakarrak gara Irunen. Badira aka-

demiak, baina kirol elkarteak ez", argudiatu du Iñigo Aizpurua Txingudi Errugbi Elkarteak: "Australiako mutil bat daukagu elkartean, proposamena egin zigun, eta aukera aprobeztatu beharra zegoela pentsatu genuen". Eskaintzak harrrera ona izan du, aurreko urteekin alderatuta, asko handitu dituztelako parte hartzaileen kopuruak. Astero 20-25 haur edukitzen dituztela baieztatu du Aizpurua.

Super Amara BATEn kasuan ez bezala, errugbian aritzera animatuko diren gaztetxoak erakartzea da Txingudi elkartearen helburua. Horretarako, udako ikastaroak errugbiaren benetako izaera ezagutarazteko balio duela aipatu du Aizpurua: "Jende askok beldurra izaten dio errugbiari, eta udakoa aukera ona izaten da beldur hori galtzeko". Jolas kooperatiboak eta talde kirolak lantzen dituzte, eta egunero, errugbi pixka bat egiten dute. Udaran Plaiaundin dabilzan haur batzuek, datorren urtean errugbian jokatzeke asmoa dutela aurreratu diete dagoeneko.

**"Gehien bat, eskualdeko gurasoek udaran izaten duten beharrari erantzutea zen gure asmoa"**

Ibon Muñoz, Super Amara BATEko kirol zuzendaria



bideosare

*Bideoak zure erara!*



- > Ikus-entzunezko proiektuak
- > Bideo grabaketa eta edizioa
- > Multimedia

bideosare.com





MIKEL MARTIARENA, Area 51 boulder aretoko arduraduna:

# “Potentzia, indarra eta teknika handia behar dira boulderrera”

Ameriketako Estatu Batuetako base militar sekretua hartzen omen du Nevadako basamortuan galduta dagoen Area 51 eremuak. Espazio-ontziekin eta estralurtarrek lotu izan da urtetan. Irungo Area 51ko jarduera ez da horren ezkutukoa, eskaladaren zaleek behintzat, ondo ezagutzen dute. Haren kokapenak, aldiz, badu zailtasunik. Landetxa-Katea auzoan dago, Olaberriara doan errepideko zubia igaro aurretik, ezker aldera. Estralurtar baten aurpegia darman kartela ikus daiteke bidegurutzean, AEBetako Area 51ri keinua eginez. Mikel Martiarenak kudeatzen du boulder aretoa, bere familiarekin batera. Eskalada ezagutu zuenetik, haren inguruan antolatu du bizitza osoa.

## Nola hasi zen eskaladarekin urtetan izan duzun harremana?

Mendian hasi zen, aspaldi. Ni mendizalea nintzen, eta momentu batean konturatu nintzen mendi jakin batzuk igo ahal izateko, eskalada pixka bat egiten hasi beharra nuela. Ikastaro batean izena eman nuen, eta hor deskubritu nuen eskalada. Hortik aurrera, gero eta gutxiago joaten nintzen mendian ibiltzera, eta gero eta gehiago eskalatzerara.

## Boulderra da, gaur egun, zure modalitate gogokoena. Zeintzuk dira haren ezaugarriak?

Ni sokarekin hasi nintzen, baina boulderra ezagutu nuenetik, ez dut besterik egiten. Ohiko materialik gabe burutzen da (sokak, arnesa, kaskoa etab.), gizakia arrokaren kontra. Segurtasuna bermatzeko, koltxoneta bat jartzen da azpian, eta kide batek erortzea zaintzen du. Arroka txikietan egiten da, ez da altuera asko hartzen, baina zailtasuna handia izaten da. Potentzia, indarra eta teknika handia behar dira. Ez da iraunkortasun proba bat, saiakera laburrak izaten dira.

## Jaizkibel mendia leku aproposa da boulderrera.

Benetako paradisia da, urtetan ezkutuan egon izan dena. Boulderra praktikatzeko mila bloke baino gehiago daude, Jaizkibel osoan zehar barreiatuta. Europa osotik etortzen da jendea, leku paregabea baita eskalatzeko: kalitate handiko arrokak, itsasoaren ondo-ondoan.

## Urrutiago ere bidaiatu izan duzu. Zein lekuk eman dizu arreta gehien?

Leku bakoitzak du bere puntua, bere ezaugarri bereizgarria. Paris ondoan dagoen Fontainebleu da boulderraren “meka” Europan, baina nik Suitza deskubritu nuenean, harri garria iruditu zitzaidan, herrialde alpino zoragarria delako, eta eskalatzeko leku bikainak dituelako. Urrutiago, Indian eta Mexikon ere izan naiz eskalatzen, adibidez.

## Nola lortu duzu zure zaletasuna ogibide bihurtzea?

Eskalada egiten hasi eta denbora gutxira, eskaladarekin zer ikusia zuten lanak edukitzen hasi nintzen. Hasieran, babesleak lortu nituen. Urteen poderioz, eta krisi ekonomikoaren eraginez, babesleek behera egin zuten. Rokodromoetan lan egiten hasi nintzen orduan, eta azkenean nik neuk aretoa irekitzen amaitu dut.

## Area 51 erreferentziatzeko leku bilakatu da inguruan.

Gipuzkoa mailan rokodromo handienetakoa da. Badira beste areto batzuk, eta denon artean lan egiten dugu eskaladaren praktika zabaltzeko. Gure inguruan areto estali bat edukitzeko beharra genuen, eta nik egin nuen apustu hori.

## Nondik hurbiltzen zaizue jendea?

Area 51n, hurbiltzen den jenderen zati handiena, egunerokoan behintzat, ingurukoa da: Irun, Hondarribia, Bera, Oiartzun, Errenteria, Pasaia, Lezo etab. Gero, bisitak estatu osotik, Frantziatik, leku askotatik hurbiltzen zaizkigu. Jendea gustatzen zaio noizean behin lekuz aldatzea. Bezero gehienek azpimarratzen duten ezaugarrietako bat, gurean izaten den giro ona da.

## Euskal Herrian eguraldia nolakoa den kontuan hartuta, beharrezkoa da areto estaliak edukitzea.

Nik urteak eman ditut kalean eskalatzen, rokodromorik gabe, eta ondo dakit zer den hori. Orain, Area 51rekin, asko aldatu dira gauzak. Badugulako leku bat, eguraldiaren mende egon gabe, nahi dugunean eskalatu ahal izateko, batzuetan sentitzen den behar hori asetzeko. Boulderrari eskainitako 200 metro karratu dira, eskalada mota eta zailtasun ezberdinetara egokituak.

“Europa osotik etortzen da jendea Jaizkibelera, leku paregabea baita eskalatzeko”

“Jendeak gehien azpimarratzen duen ezaugarrietako bat, gurean izaten den giro ona da”





# Berlin, udara honetarako bidaiia proposamena



## GORKA MARTINEZ

Udara, munduan barrena bidaiatzeko garai aproposa da. 2017koa, Berlinera bidaiatzeko aukera bikaina izan daiteke. Poloniako mugatik 70km-ra kokaturik, Alemaniako hiriburuak egonaldi labur batez gozatzeko milaka aukera eskaintzen ditu.

Gastronomia onekoa bada ere, garagardoak fama berezia du Alemanian. Izan ere, zonalde bakoitzak bere garagardo mota berezia du. Primerako garagardo horiez gozatzeko, Biergarten garagardo-patioak lekuriak aproposena izango dira, horrela, turismo egun luze bati amaiera emateko aukera bikaina.

Nahiz eta Berlin hiri handia izan, Alemaniako hiriburua egun pare batean bisita daiteke. U-Bahn metroak eta S-Bahn aldirietako trenak aprobetxatuz, leku batetik bestera azkartasun osoz mugitzeko aukera izango du bisitariak. Jarraian, Berlin bi egunetan bisitatzeko proposamena.

### Lehen bisita

Eguna Gendarmenmarkt plazan hasiko da. Bertan Kontzerthaus kontzertu aretoa, Französischer Dom katedral frantsesa eta Deutscher Dom katedral alemaniarra ikusi ahalko dira. Unter den Linden bulebarretik jaitsiz, Brandenburgoko Atea aurrez-aurre ikusiko da, atearen gainean kokaturiko koadriga dotorearekin apaindurik.

Atea zeharkatuz, Reichstag berreraikitako Alemaniako Parlamentua izango da hurrengo geldialdia. Honen ostean, Eberstrasetik jaitsiz, Holokaustoa-oren Oroigarrian zehar ibiliz, juduek sentitu zuten izua gogorarazi ahalko da.

Tiergarten parkeak hiriburutik une batez ihes egi-

teko aukera bikaina da. Ehiza-barruti bezala sortua izan bazen ere, Berlingo birika bihurtu da egun. Parkea ekainak 17ko kaleak zatitzen du, zeinaren erdian Garaipenaren Zutabea kokaturik dagoen. Eguna amaitzeko, Breitscheidplatz plaza bisitatu ostean, itzulia Reichstag-ean amaituko da. Parlamentuaren terrazatik, Berlin gauean argiztaturik ikusi ahal izateko.

### Museoen eguna

Bigarren eguna museoien eskainia izango da. Itzulia Check Point Charlie mugapostuan hasiko da, handik gertu Berlingo Harresia eta Izuaren Topografia museoak bisitatzeko. Bisitak amaituta, Berlingo erdigunera itzultzeko East Side Gallery-a jarraitzea izango da aproposena, aire zabaleko museoaz gozatzeko, Ostbahnhof geltokira heldu arte.

Geltokian tren hartuta Alexanderplatz-eraino iritsi eta bertan Europar Batasuneko telebista dorre handiena, Park Inn Hotel Berlin eraikina eta Munduko orduen erlojua ikusi ahal izateko. Bertatik Rathaus Berlineko Udaletxea ere ikusi ahal izango da.

Udaletxe atzetik igaro eta Nikolai auzoa bisitatu ostean, Spree ibaia gurutzatuz Museoen uhartera igaro ahalko da. Ondoren, Lutsgaratean lorategian atsedean hartu ondoren, Auzo judua ikusteko txanda izango da. Bertan, urre koloreko galtzada-harriek juduen etxeak izandakoak erakusten dituzte. Oranienburger Straße-n Sinagoga berria bisitatu ostean, eguna garagardo batekin amaitzea ideia bikaina izango da, indarrak berreskuratzeke.

## DANTZAN HASTAPENAK 3 URTETIK AURRERA

FUNKY/HIP HOP (HAURRENTZAT)  
BREAK DANCE  
GORPUTZ TEKNIKA  
FUNKY/HIP HOP (HELDUENTZAT)  
ZUMBA  
PILATES  
BODY TRAINING  
HIPOPRESIO ABDOMINALAK

Erreserbatu zure tokia orain!

Informazio gehiago: [mydancestudio39@gmail.com](mailto:mydancestudio39@gmail.com)  
615 00 45 79 / 609 06 07 36  
Colon Ibilbidea, 39, 20301 Behea, Irun





# Lekaenea HH

## LEKA ENEAKO 2 URTEKO GELAN



*KAIXO LAGUNAK, GURE  
KAMILA IPUIN POLIT BAT  
KONTATZEN ARI DA!*

*ELKARREKIN JOLASEAN  
IKASTEN DUGU!*



*HEMEN GAUDE SALTO GELAN  
JOLASTEN!*

*GURE ESKOLAKO PARKEA  
ZORAGARRIA DA!*





# Euzkaraz, Irunen barrena

## Eguzkitza BHI 2.A

### EZ DIDATE UZTEN!!!!!!

#### Frantsesak trenbidea eitten arittu ziren denborako bertsuak

Frantses oien iria  
beti aldrebes.  
Gaur lau baittuzte  
biar baterez.  
Len aragiya eltzian  
eta belar billa baratzian.  
Kardaberak jaite' ittuzte  
diruak aitzian.

Jaya etorri eta  
tabernarako plantatzen.  
Bazkaldu eta  
dirua kontatzen.  
Kafiak artu, kopak eranez,  
erari fiña jokatzen.  
Egiñik eztut ukatzen.  
Oraiñ ezpañak nekatzen.  
Txardiñ ezurrak txupatzen.

Lenago dirua lasai.  
Oraiñ urrutittik usai.  
Itxian niok andre zai.

Kaixo Ivana:

Ederra gertatu zait! Gaur ere amarekin arazoak izan ditut arroparekin.  
Altxatu egin naizen momentuan arropa jantzi dut, eta amari beste behin  
ere ez zaio gustatu.

Ez pipertu! ezan diot, eta bera kaskagogorra eta memeloa deitu dit.  
Beti bezala arropa kendu izan behar dut eta berari gustatzen zaion  
arropa jarri izan behar dut.

Nazkatuta nago arroparen kontuarekin!. Ni berari gustatzen zaion arropa  
jantzi behar dut, baina bera beti beltzez doa eta nahiz eta niri ez gustatu,  
ez da arropaz aldatzen!.

Hori gertatzen zaidanean, motxilan sartzen dut arropa eta etxeko atea  
ixten dudanean, arropa aldatzen dut eta bueltatzerakoan kontrakoa,  
arropa kendu eta berari gustatzen zaiona jantzen dut. Hau lana!  
Espero dut zu ondo egotea eta horrelako arazoak ez izatea.

Asko maite zaitut, eta espero dut laster ikustea.

Musu bat.

Onintza Castellanos. Eguzkitza BHI. 2.A

S.R.A. andereari jaso (1959-VII-12). Trenbidea eraiki  
zuten garaikoak dira. Ama eta anaiari ikasi zizkion. (El  
Bidasoa, 1959-IX-19)

**Iturria: Nikolas Alzola Gerediaga**  
**Euskaraz, Irunen barrena**

*Anaka kalea, 11*  
**IRUN**  
943.61.54.57

 **TABISA**  
TANATORIO DEL BIDASOA

*San Pedro kalea, 49*  
**HONDARRIBIA**  
943.64.54.57



**BETIDANIK KONFIANTZA ETA ARDURAREKIN**



# Gazteentzako berrogeita hiru etxebizitza eraikiko dituzte Irunen

Zuzkidura-bizitokiak 2019 urte erdialderako prest egotea espero dute

Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza Sailak gazteei zuzenduriko 43 etxebizitza eraikiko ditu Irunen, Alberto Larzabal kalean. Bizitoki berri hori eraikitzeko esleipena ekainean egingo da eta etxebizitzak 2019 urte erdialderako prest edukitzea espero dute agintariek. Bereziki gazteei zuzenduriko etxebizitzak izango dira, gazteei lehen bizitokia topatzeko aukera errazteko asmoz.

Ekainean etxebizitzak eraikitzeko obraren lizentzia esleitu dute, horrela, lehenbailehen eraikuntza lanei ekin ahal izango zaie. Iñaki Arriola Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza sailburuak jakinarazi du proiektua ez dela berria: "Obra hau garatzeko konpromisoa aspaldi sortu zen, baina, azkenean, proiektua aurrera eramateko ordua iritsi da".

Guztira 43 etxebizitza eraikiko dira eta bizileku berri hauen helburua irundar gazteei haien lehen bizitokia eskuratzeko erraztasunak ematea izango da. Etxebizitza guztietatik 38k sukaldea, egongela, komuna eta logela bana izango dituzte. Horiez gainera, bi logela edukiko dituzten lau etxebizitza eraikiko dituzte, eta elbarrientzako egokiturik egongo den etxebizitza bat ere egongo da.

Orubea Alberto Larzabal eta Aduana kaleen artean kokaturik dago, eta 995 m<sup>2</sup>-ko azalera du. Etxebizitzaz gainera, eraikinak 18 garaje eta bizikletak gordetzeko gela bat edukiko ditu. Iñaki Arriola sailburuak azaldu du obraren esleipena egin ostean, lanak abiatu ahal izango direla, eta aurreikusi du, 2019 urtearen erdialderako lanak amaiturik egongo direla.

Gazteak gehienez 5 urtez bizi ahal izango dira zuzkidura-bizitoki horietan. Izan ere, etxeen helburua ez da gazteak bertan denbora mugagabek geratzea, baizik eta gazteei, behin betiko etxebizitza topatzen duten bitartean, bizileku probisional bat eskaintzea. Honela, azken aldiaren gazteek haien gurasoengandik emantzipatzeko izan duten zailtasunari aurre egin nahi zaio, gazteentzat bereziki pentsaturiko plan honen bitartez.

**"Obra garatzeko konpromisoa aspaldi sortu zen, baina, azkenean, proiektua aurrera eramateko ordua iritsi da"**

Iñaki Arriola, Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza sailburua

Proiektuaren lizitazioak 4,6 milioi euroko kostua izan du eta ziurtagiri energetikoari dagokionez A kalifikazioa lortu du. Alegia, etxebizitza berri honek energia berriztagarrien erabileran apustu garrantzitsu bat egingo du, energia eskuratzeko eguzki-plakak eta biomasa-galdarak erabiliko dituelarik.

**"Irungo Udalean argi dugu alokairuzko etxebizitzak indartzea beharrezkoa dela"**

Jose Antonio Santano,  
Irungo Alkatea

#### Lankidetzarako prest

Etxebizitza sailak zein Irungo Udalak alokairuzko etxebizitzaren beharrekiko ardura azaldu dute. Jose Antonio Santano Irungo Alkatea udalaren asmoa adierazi du: "Irungo Udalean argi dugu alokairuzko etxebizitzak indartzea beharrezkoa dela". Gai honen inguruan, Irungo

Alkatea azaldu du herritarren eskaeretan "aldaketa" bat gertatu dela eta alokairuzko etxebizitzaren eskaintza garrantzitsu bat egitea ezinbestekoa izango dela hiritarren beharrik asetzeko.

Iñaki Arriola sailburuak zein Jose Antonio Santano alkateak horrelako proiektu gehiago garatzeko lankidetzan aritzeko prestutasuna erakutsi dute. Eusko Jaurlaritzak eta Irungo Udalak handituz doan eskaera bati aurre egin beharrean direla gehitu dute, eta gizartearen eskakizunak asetzeko ezinbesteko izango dela.

#### Gazteak helburu

Gazteei zuzenduriko etxebizitzaren proiektuek bultzada handia jaso dute azken aldiaren Irunen. Alberto Larzabal kaleko egitasmoaz gainera, Oinaurreko auzoan antzeko ezaugarriak izango dituen proiektu bat gauzatzeko intentzioa du udalak. Etxebizitza hauek 35 urtetik beharrazio gazteei zuzendurik egongo dira eta gehienez bost urtez alokatu ahal izango dira.

Etxebizitzak eraiki ahal izateko Oinaurreko plan partziala aldatzea beharrezkoa izango da. Honela, etxebizitza kopuru handiago bat eraikitzeko aukera eta 2011ean onartutako planak zuen akatsa konpontzea lortu nahi da. Planaren aldaketari esker 34 etxebizitza eraikiko dira guztira: logela bakarreko 30, bi logelako bi, eta egokitutako bi apartamentu. Etxebizitza horien helburua, Alberto Larzabal kalekoen antzera, gazteen emantzipazioa bultzatzea da.







# Adour-Bidasoa XXVI

**Sariak:**  
 Lehen saria: 2.500 euro.  
 Epaimahaiaren Sari Berezia: 500 euro.  
 Egile gaztearen lanik onenari: 500 euro.

**Aurkezte epea:**  
 Irailak 5etik 10era Amaia Kultur Zentroan.

**Informazio gehiago:** [www.irun.org](http://www.irun.org).

Irungo Udalak Adour-Bidasoa XXVI Pintura lehiaketa antolatzen du. Pintura munduko artista eta zaletu guztientzat zabalik dago eta baldintza bakarra 18 urtetik gora edukitzea da.



- Aurrez aurre: Irungo CBA liburutegi berrian
- Telefonoz: 943 50 54 44 / 943 50 54 40
- Posta elektronikoz: [igazte@irun.org](mailto:igazte@irun.org)
- Webean: [www.irun.org/igazte](http://www.irun.org/igazte)
- WhatsApp bidez: 607 771 173

## Bulegoko ordutegia udan

Irailaren 29 arte iGazteko bulegoaren ordutegia, 10:00etatik 14:00etara, astelehenetik ostiralera izango da.

Hori bai, gogoan har ezazu atek interneten egunero-egunero 24 orduz irekita daudela!

Bidal ezazu posta bat zure zalantzarekin, iradokizunarekin edo informazio eskariarekin.

Posta elektronikoz: [igazte@irun.org](mailto:igazte@irun.org);  
 WhatsApp bidez: 607 771 173.  
 Telefonoz: 943 50 54 44.  
 943 50 54 40.

## Hendaiako hondartzara joateko autobusa

- Astelehenetik igandera (irailaren hasierara arte).

- Prezioa: 1,35 euro.

- Lurraldebus/Mugi txartelak ezin dira erabili.

- Irundik irteerak: 09:00etatik 19:00etara (maiztasuna: 60').

- Hendaiatik irteerak: 09:30etatik 20:30etara (maiztasuna 60').

## "Irun Hiria" XXVII. argazki lehiaketa

Martxan dago IAE-AFIk Irungo Udalaren laguntzarekin antolatzen duen argazki lehiaketaren 28.edizioa.

**Modalitatea:** Argazkiak argazki-perean, zuri-beltzean edo koloretan, eta edozein teknika erabiliz onartuko dira.

**Antolatzailea:** Irungo Argazki Elkarte (I.A.E.).

**Gaiak:** librea eta Irun.

**Epea:** urriak 13, barne.

**Sariak:**

-Irun: "Peio Urtxegi" ohorezko saria hiru argazki bildumari: 500 euro eta makila.

Aragazki solteei hiru sari: 300,200 eta 100euro .

Herriko parte hartzaileei sariak: 140, 120 eta 100 euro.

-Libre:

Lehena, bigarrena eta hirugarrena: 200, 150 eta 100euro.

**EKAR** teleinmobiliaria

Nafarroa ibilbidea, 7 - IRUN ☎ +34 669 408 705  
[info@ekarinmobiliaria.com](mailto:info@ekarinmobiliaria.com) [www.ekarinmobiliaria.com](http://www.ekarinmobiliaria.com)

### PRIMERAKO AUKERAK

|  |   |  |
|--|---|--|
| <br><b>Pisua salgai Irun Alda zaharra</b><br>Azalera 50 m <sup>2</sup> , 2 gela, salmagailu, egongela, buroio, hainbat sarrera, terraza, ingurugunea oso onak. Irteerak oso onak.<br><b>75.000 €</b> | <br><b>Pisua salgai Irun Larramundi</b><br>Azalera 32 m <sup>2</sup> , 2 gela, salmagailu, egongela, buroio, garbaitza, 2 baloi, trasteroa, ingurugunea oso onak.<br><b>127.000 €</b>           | <br><b>Pisua salgai Irun Aizkari-Portu</b><br>Azalera 75 m <sup>2</sup> , 3 gela, salmagailu, egongela, buroio, terraza, 2 baloi eta trastero.<br><b>139.000 €</b>     |
| <br><b>Pisua salgai Irun San Joan</b><br>Azalera 101 m <sup>2</sup> , 3 gela, salmagailu, egongela, buroio, trastero, terraza, garbaitza, ingurugunea oso onak.<br><b>145.000 €</b>                  | <br><b>Pisua salgai Irun Aizkari-Portu</b><br>Azalera 47 m <sup>2</sup> , 3 gela, 2 baloi, salmagailu, egongela, buroio, trastero, garbaitza, buroio, ingurugunea oso onak.<br><b>170.000 €</b> | <br><b>Pisua salgai Irun Dombia</b><br>Azalera 31 m <sup>2</sup> , 3 gela, 2 baloi, salmagailu, egongela, buroio, trastero, ingurugunea oso onak.<br><b>240.000 €</b>  |
| <br><b>Pisua salgai Irun Kelen</b><br>Azalera 112 m <sup>2</sup> , 3 gela, salmagailu, egongela, buroio, garbaitza, trastero, terraza, ingurugunea oso onak.<br><b>310.000 €</b>                     | <br><b>Etxea salgai Hendale</b><br>Azalera 116 m <sup>2</sup> , 3 gela, salmagailu, buroio, egongela, buroio, trastero, garbaitza, ingurugunea oso onak.<br><b>299.000 €</b>                    | <br><b>Etxea salgai Irun Ventas</b><br>Azalera 200 m <sup>2</sup> , 4 gela, 2 baloi, salmagailu, egongela, buroio, trastero, ingurugunea oso onak.<br><b>407.000 €</b> |

**"ALQUILER PREMIUM" ALOKATU PISUAK LASAITASUN OSOZ, KONTSULTATU!!**



# ABUZTUAK

18

19

31

**Girabira:**  
**Zinema**

**Zer:** Kontzertuak eta Bidasoaldeko zinemagileen labor-metraiak.  
**Non:** Alai Txoko parkean (Elizatxo hiribidean).  
**Ordutegia:** 20:30etatik 00:30etara.

**Bidasoa Folk**  
**jaialdia**

**Zer:** Aziza Brahimek eskainitako kontzertua.  
**Non:** Urdanibia plazan.  
**Ordua:** 21:00etan.  
**Prezioa:** Doan.

**ACUSTICBAS:**  
**YASMIN SHAH**  
**TRIO**

**Zer:** Kontzertu akustikoa izango da, ohi den bezala, CBAko atarian. Eguraldi txarra egiten badu, berriz, printzipioz, kulturguneko sarreran izango dira.  
**Non:** CBA udal liburutegian.  
**Ordua:** 19:15etan.  
**Prezioa:** Doan.



## abuztuak 17-20

### Moskuko Jaiak



**Osteguna**  
13:00 - Teatrua: Matiena + Norka-potesa  
20:00 - Txarri + jaiak  
20:30 - Kontzertua  
Pelaiz & Teina Txarri  
Pecorina United  
Kubala

**Ostirala**  
17:00 - Fala txapelketako finalerak  
18:00 - Plogaketa mila  
19:00 - Dantza-potesa  
20:30 - Sardinak  
21:30 - Kontzertua  
Cebasa Pasa  
Jaiak Eriki  
Talle Jorpeza

\*Ostegun Folk-et antolatutako jaiak  
\*\*Ostirala Zokeroan Jaiak antolatutako jaiak



**Larunbata**

11:00 - Fala txapelketako finala  
12:00 - Hermitako lehiaketa  
14:00 - Hermitako bazkaria  
17:00 - Bertso-triki-potesa  
18:00 - Za-Zango Txarria  
21:00 - Kontzertua  
Aziza Brahim\*  
Afradiciatz  
Djem Djem  
Serpuzkiaz

**Igandea**

11:00 - Urdanibia Jaiak  
11:30 - Hermitako lehiaketa  
12:00 - Tardilla lehiaketa  
13:00 - Txarri txapelketak  
14:00 - Irungo Hiria musika banda\*\*  
16:00 - Fala txapelketak  
17:00 - Ipuin kontzertua  
18:00 - Hermitako txarria  
19:00 - Hermitako txarria  
19:00 - Hermitako txarria  
19:30 - Dantza (Afradiciatz)  
20:00 - Bertso-potesa  
20:30 - Kontzertua: Profesor Vicente  
21:30 - Kontzertua  
Left Hook

## abuztuak 18-20

**Ama Xantalengo**  
**jaiak**

**Non:** Urdanibia Plazan eta inguruan.  
**Ostirala 18:**  
- 17:00-19:30: Ermitan bisitaldi librea.  
**Larunbata 19:**  
- 10:00-13:30: Ermitan bisitaldi librea.  
- 11:30 Ermitan meza Atzokoak Abesbatzarekin.  
- 12:20: "IV TXAPELAUNDI HANDIA" saria ematea Ermitaren Plazatxoan.  
- 12:30: Janurrekoa eta musika.  
**Igandea 20:**  
- 09:00: Txistulari Taldearen diana auzoko karriketatik.  
- 13:00: Irungo Hiria Musika Bandaren emanaldia.

## irailak 9 arte

**Erakusketa: Irun**  
**eta Irungo jendea**

**Zer:** Atzera begirako 50 bat argazki, José Mari Castillo argazkizaleak lagatakoak, duela hainbat urte egungo Irun itxuratu zuten eraikin, kale, fabrika eta langileen irudiak ageri dituztenak.  
**Ordutegia:** Ostegunetik larunbatera 19:00etatik aurrera.  
**Non:** Kabigorri Bidasoaldeko Ateneoa. Sargia, 1, atzealdea.

## irailak 29 arte

**Erakusketa:**  
**Maria Cueto**

**Zer:** "Constelaciones vegetales" bildumak hogeiki eskultura ditu, teknika sotil eta zehatzez, hazien eginak. Obra delikatuak dira, aretoko sabaitik zintzilik daudenak, eta airean flotatzen ari zaren irudipena sortzen dute. Gehienek naturarekin lotura duten formak dira, espiralean aurkeztuta, erakusketari izena ematen dioten espiralak sortuz.  
**Ordutegia:** Asteazkenetik larunbatera: 18:00-21:00; Igandea eta jai egunak 11:30-13:30.  
**Non:** Mentxu Galen. Urdanibia plazan.  
**Prezioa:** Doan.





# bertako

igogailuak | ascensores  
igogailuen mantentzen-lanak

**24 orduko**  
benetako zerbitzua



Pieza guztiak barne  
**100 eurotik aurrera**

**Euskarazko**  
zerbitzu profesionala



**EMERGENTZIA-TELEFONOA DOAN**  
LED ARGIEN ITZALTZE AUTOMATIKOA KABINAN  
**IRAUPEN-KONPROMISO GABE**

**ESKATU AURREKONTUA**

[www.bertako.eus](http://www.bertako.eus)  
[info@bertako.eus](mailto:info@bertako.eus)  
691 64 79 65